Gurutze Sanduberen siñelie gati gure etsayetati libra gachazu gure
Jaune eta Jaungoikoakua. Amen. Aiteren, eta Semieren, eta Espiritu
Sanduberen izenien. Amen. Aite gurie. Aite gurie, zerubetan zaudena:
Santifika bedi zure izena: Betor gure gana zure erreñube: Egin bedi
zure borondatie zeruben bezela lurrien ere: Egun iguzu guri geren
egunerosko ogiye: Barka dizkiguzu guri geren zorrak, guk geren
zor duguneí barkatzen tyogun bezela: Ez gachazule utzi ten=
tazion erortzera: Baizik libra gachazu gaitz guziyetati. Amen.
Abe Mariye. Abe mariye, graziyes betie: Jaune da zurekin: Bedikatube
zu zera andre guziyen ertien, eta bedikatube da zure sabeleko frutube
Jesus. Santa Mariye, Jangoikuaren Ama, zuk erregu zazu gu bekata=
riyon gati, orañ eta beti geren eriyotzeko orduben. Amen. Kredua.
Nik siñestatzen dut Jangoiko, Aite guztis poderoso, zeruberen eta
lurreren kriadoriyen baiten, eta arren Seme bakar Jesukristo gu=
re Jauneren baityen, zeñ konzebityu baizen Espiritu Sanduberen
obras eta birtutes, jaiyo zen Ama Birjiñeren gandik, padezityu zuben
Pontzio Pilatosen podorien azpiyen, gurutzifikatu zuten, ill zuten,
enterratu zuten, yaichi zen infernuetara, andik irugarren egunien
erresuztatu zen illen erteti, iyen zen zeruetara. an dago jarririk be=
re Aite guztis poderosuaren eskubiko aldien, andik etorriko
dela biziyek eta illek juzgetzera. Nik ala siñestatzen dut Espi=
ritu Sanduberen baityen, Elize Ama Santa katolikuan, Sandu=
ben Komuniuan, bekatuben barkaziyuan, aragiyen erresur=
rezziyuan, eta bizitze sekulekuan. Amen. Salbe. Jangoi=
kuak salba zechala, Erreiñe, miserikordiyeren Ama, bizitze, dulzure
eta esperanza gurie; Jangoikuak salba zechala. Zure deyes gaude
Ebaren ume desterratubek, zure gana gaude suspiriyos, sentimentus
eta negarres negarresko balle onetan. Ea bada, gure abogada,
itzuli chazu gure gana zure begi miserikordiyoso oyek, eta
destiyerro onetati guazen orduben, erakusi zaguzu zure sa=
beleko frutu bedikatube Jesus. ¡O klementisime! ¡O piyadosa! ¡O
dulze Birjiñe Mariye! Erregutu zazu gure gati, Jangoikua=
ren Ama Santa, merezi dezagun erdeistie Jesukristoren ofre=
zimentubek. Amen. Jangoikuaren legeko Mandamentu
Sandubek. Jangoikuaren legeko mandamentu sandubek dire
amar. Lembiziko irurek Jangoikuaren onrari pertenezitzen daiz=
kiyonak, beste zazpiyek projimuaren probechuari. Lendaiskua,
Jangoikua amatzie gauze guziyen gañien: Bigarna, ju=
ramentu banuan ez egityie: Irugarna, jaiyegunek santifike=
tzie: Laugarna, guratsuak eta zarragokuak onratzie: Bosgarna,
iñor ez iltzie: Seigarna, lujuriyeko bekaturik ez egityie: Zaz=
pigarna, ez ebastie: Zortzigarna, falso testimoniyorik ez goratzie
eta ez gezurrik esatie: Bedratzigarna, besteren biziki derik ez
deseiyetzie: Amargarna, Jangoikuak ematain tyuen ones eta
ondasunez kontentatzie. Amar mandamentu sandubok enzer=
ratzen dire biyetara: Serbitzetzie eta amatzie Jaungoikua gauze
guziyen gañien, eta proimua geren burube bezela. Artikulo
fedeskuak. Artikulo fedeskuak dire amalau. Lendaiskua da
siñestatzie Jaungoikua dela Aite: Bigarna da siñestatzie
dela Semie: Irugarna da siñestatzie Jangoikua dela Semie:
Laugarna da siñestatzie Jangoikua dela Espiritu Sandube: Bos=
garna da siñestatzie Jangoikua dela Kriadorie: Seigarna da siñe=
tatzie Jangoikua dela Salbadorie: Zazpigarna da siñestatzie

Jaungoikua dela Glorifikadorie. I Umanidade sanduberenak dire auek: Lendaiskua da siñestatzie Jesukristo gure Jauna gizona den parteti konzebitiyube izendu zela Espiritu Sanduberen obras eta birtutes: Bigarna da siñestatzie jaiyo zela Birjiñe Mariyeren gandi, gelditzen zela birjiñe jaiyo baño len, jaiyotzien, eta jaiyo eskero: Irugarna da siñestatzie errezibitiyu zela eriyotze eta pasiua gu eta mundu guziye salbatzie gati: Laugarna da siñestatzie jaichi zela infernubetara arren etortzera sanduberen espera zauden anime justuak libratu eta konsolatzera: Bosgarna da siñestatzie erresuzitatu zela illen erteti irugarren egunien: Seigarna da siñestatzie iyen zela zerure, eta an dagola jarririk Jangoiko Aite guztis poderosuaren eskubiko aldien: Zazpigarna da siñestatzie andi etorko dela biziyek eta illek juzgetzera, au da, onai emanen dio bere gloriye, zergati guardatu zityuben arren mandamentubek, eta gaiztuai sekuleko pena zergati guardatu etzityben. I Kristau Dotriñeren deklaraziyua galdetzen eta errespondatzen dela. I Galdetzen dut: ¿Kristaube zara? Errespondatzen dut: Bai Jaune, Jaungoikuaren graziyes. I ¿Kristauberen izen ori nundi duzu? E. Jesukristo gure Jauneren gandi. I ¿Zer esanai du kristaubek? E. Kristoren gizona I ¿Zer entendatzen duzu Kristoren gizonas? E.

Beinza-Labayen

Lendabiziko zazpiyek dibinidadiari pertenezitzen daizkiyonak, beste zazpiyek Jesukristoren umanidade sanduberi pertenezitzen daizkiyonak.